

# FORUM

DER EUROPÄISCHEN MINDERHEITENREGIONEN OF EUROPEAN MINORITY REGIONS

[www.hizkuntzenirabazia.eus](http://www.hizkuntzenirabazia.eus)

## HIZKUNTZEN IRABAZIA

BENEFITS OF LANGUAGE  
INDUSTRY IN THE ECONOMY



DONOSTIA · AZAROAK 26-27

# PRENTSA DOSIERRA



FUEN



LANGUNE

EUSKAL HERRIKO  
HIZKUNTZA INDUSTRIEN  
ELKARTEA

GAIA TALDEA

## KONGRESUARI BURUZ

'Hizkuntzen irabazia. Benefits of language industry in the economy' kongresua **LANGUNE**k, Euskal Herriko hizkuntza industriren elkarteak, Federal Union of European Nationalities (**FUEN**) erakundearekin batera antolatu du. **Azaroaren 26an eta 27an Kursaa**lean bilduko dira Europa osoko 30 hizlaritik gora, tartean Euskal Herrikoak; eta besteak beste, 15 hizkuntza gutxituren egoera eta errealitatea ezagutzeko aukera egongo da.



[www.hizkuntzenirabazia.eus](http://www.hizkuntzenirabazia.eus)

## ZERGATIK KONGRESU HAU?

### 1 Adimen artifiziala gure bizitzak aldatzen ari delako eta teknologia eta hizkuntza oso loturik daudelako

Europar Batasunak 1999 urtean, dagoeneko erakutsi zuen bere kezka, Informazioaren Gizartearen garapenari buruzko txostenean. Bertan, teknologia berrien ezarpenak sortu ditzaketen hizkuntzaren baztertze arriskuei buruz hitz egin zuen eta horiek kontrolatzeko eta saihesteko beharra zegoela esaten zuen. 25 urte beranduago, adimen artifizialaren ez tandarekin, ingelesaren hegemonia areagotzen ari da arlo digitalean eta beste hizkuntza batzuk, bereziki gutxituek ahalegin bikoitza egin behar dute ingurune digitalean euren presentzia bermatzeko. Beraz, garrantzitsua da hizkuntza-aniztasuna ingurune digitalean eta teknologikoan ere kudeatzea.

### 2 Lurralde eleanitza garelako eta horrek abantaila ematen digula ulertuko dugulako, beste eleaniztasun testuinguru batzuentzat erreferente izan baikaitezke

Euskal Herriak, berezitasun bat badu, eleanitza dela, bi hizkuntza hegemoniko eta hizkuntza gutxitu bat ditugu gure berezko hizkuntzak, gehi migrazio fluxuek ekarritako hainbat hizkuntza. Euskararen biziraupen eta garapenerako borrokak eta hizkuntza desberdinak aldi berean maila orekatuan kudeatu beharrak hizkuntzen industria garrantzitsu bat sortu du Euskal Herrian, behar desberdinei aurre egiteko ekosistema osatu behar izan baitugu: gure hizkuntza teknologia berrietan atzean ez geratzeko, arlo espezializatuetan ere gure hizkuntzak presentzia izan dezan terminologia garatzeko, kalitatezko hizkuntza irakaskuntza garai berrietara moldatzeko... Gure lurraldeak beste hizkuntza batzuei, bere biziraute eta garapen prozesuan egin dituen aurrerapausoak erakutsi ahal dizkie.

## 3 Euskal Herria eta Europaren arteko lankidetzak aukera berriak sortu ahal dituelako

Bi egunez Euskal Herriko zein Europako adituak elkartuko dira Kursaalean. Gurea besteei erakustez gain, beste hizkuntza eta lurralde batzuetatik irakasbideak jasoko ditugu, antzerako egoeran dauden hizkuntzen arteko elkarlana aberasgarria izango delako.

## 4 Hizkuntzen kudeaketak eragin ekonomikoa duela ulertuko dugulako

“Hizkuntza gutxituen biziraupenak eta garapenak hizkuntzarekin zerikusia duen industria indartsua sortzen laguntzen du, aberastasun kulturala sortzeaz gain, lurraldea ekonomikoki ere indartzen duena”

## KONGRESUKO GALDERAK

- Europako beste hizkuntza gutxituek zer estrategia digital dituzte martxan?
- Estrategia horiek zer garapen maila dute?
- Europako gainontzeko hizkuntza gutxituek zer ekarpen egiten diote euren herrialdeetako ekonomiei?
- Zer iritzi du gaur egun Europar Batasunak hizkuntzen garapenari buruz, oro har, eta zehazki, hizkuntza gutxituei buruz?

## GAIAK

### GAIA 1

## HIZKUNTZAREN INDUSTRIEN BALIO ERANTSIA

Hizkuntza gutxituak dituzten herrialdeek hizkuntza industria sendo eta bizia izan ohi dute, hizkuntza horren biziraupenak eta dagokion herrialdeko eleaniztasuna kudeatzeko sortzen diren beharrei erantzun ahal izateko. Adimen artifizialaren eztandaekin, ingelesak hizkuntza hegemoniko bezala hartu duen indarraren aurrean, beste hizkuntzek beraien teknologia sortzeko beharra ikusi dute, eta horrek ekonomian ondorioak ditu. Panel honetan ikusiko dugu zer nolako garapen teknologikoa bizi duten beste hizkuntza batzuek eta zein garrantzitsua den ekonomiarentzat industria hau sendo egotea.

### GAIA 2

## NOLA LAGUNDU ETA FINANTZATU DEZAKETE HERRIALDEEK HIZKUNTZA TEKNOLOGIEN GARAPENA?

Hainbat herrialdek euren hizkuntza teknologiak garatu ahal izateko diru-laguntza planak eta inbertsio programak martxan jarri dituzte. Panel honetan ezagutuko dugu Espainiar estatuak arlo honetan egin duen lana, baita erkidegoek martxan jarri dituzten planak ere.

Manuel González Bedia, Espainiako Gobernuako Teknologia Digital Aurreratuen eta Hizkuntzaren Ekonomia Berriaren Plangintza Estrategikoaren zuzendari nagusiak Espainiar estatuaren hizkuntza teknologiei buruz ezarritako strategiari buruz hitz egingo du eta beste lau hizlarik lau lau hizkuntzei eragiten dieten planei buruzko xehetasunak emango dizkigute.



**Euskara :: GAITU plana**

**AITOR ALDASORO ITURBE**

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako idazkari nagusia



**Katalana :: AINA plana**

## MAITE MELERO NOGUES

Bartzelonako Superkonputazioko Zentro Nazionalako Hizkuntzaren Teknologien Unitateko kidea eta Itzulpen Automatikoaren taldeko zuzendaria



**Valentziera :: VIVES plana**

## RAFAEL MUÑOZ GUILLENA

Alacanteko Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Lengoaia eta Sistema Informatikoen saileko katedraduna eta Hizkuntza Naturala Prozesatzeko Espainiako Elkartearen presidentea



**Galegoa :: NÓS plana**

## VALENTÍN GARCÍA GÓMEZ

Galiziako Xuntako Hizkuntza Politikako idazkari nagusia

## GAIA 3

### HIZKUNTZA GUTXITUEN LANKIDETZA SUSTATZEA, DIGITALIZAZIOA ETA ADIMEN ARTIFIZIALA SUSTATZEKO

Hizkuntza gutxitu guztiek ez dituzte garatzeko baliabide ekonomiko eta tekniko berdinak. Helburua izanik hizkuntza gutxituak garatzea, eta mundu digitalean atzean ez gelditzea, panel honetan ikusiko dugu, zein baliabide erabili dituen bakoitzak eta nola sustatu daitekeen lankidetzaren hizkuntza ezberdinak garatu daitezkeen.

## GAIA 4

### ELEANIZTASUNAK INTERNETI EMATEN DION BALIO ERANTSIA

Edozein hizkuntzarentzat garrantzitsua da Interneten presentzia izatea. Alegia, hizkuntza desberdinen arteko bizikidetzaren testigu izan behar du ingurune digitalak ere. Panel honetan Interneten hizkuntzen presentzia bermatzeari buruz asko dakiten hizlarien laguntzarekin, galdera desberdinei erantzuten saiatuko gara:

- **Zer aberastasun dakarkio interneti eleaniztasunak?**
- **Zer egin behar da eleaniztasun hori lortzeko eta zaintzeko?**

## GAIA 5

### “...ORRI HAU EZ DAGO ESKURAGARRI HIZKUNTZA HONETAN...”

Panel honetan Interneten erabateko hizkuntza berdintasuna lortzeko dauden zenbait arazo aztertu nahi dira. Esaterako, karaktere eta alfabeto bereziak onartzea domeinu izenetan, edo erabaki politikoak tarteko, zenbait kasutan debekatzen diren Interneteko orriak.

## GAIA 6

### IKERKETATIK APLIKAZIORA, BALIO-KATE OSO BAT GURE KOMUNITATEKO HIZKUNTZAK ETA EKONOMIAK INDARTZEKO

Hizkuntza gutxituen biziraupenak, digitalizazioaren erronkak eta lurraldeko eleaniztasuna kudeatu beharrak hizkuntzaren balio-kate osoaren garapena dakar, hasi ikerketatik, garapenetik pasaz eta aplikaziora iritsiz. Balio kate horren osaketak dagokion herrialdeko ekonomian eragina dauka. LANGUNEk 2019an Euskararen balio ekonomikoa aztertu zuen, eta azterketa hark ondorioztatu zuen hizkuntzak gure lurraldeko Barne Produktu Gordinean ondorioak dituela.

Panel honetan Euskal Herriko errealitatea aztertuko dugu. Bertan parte hartuko duten hizlariak datu ekonomikoak buruz hitz egingo dute, baita hizkuntzak lehiakortasun irizpideetan duen eraginari buruz eta ikerketa baliatuz nola iritsi gaitezkeen merkatuak behar duen aplikaziora, baita prozesu horretan aurkitu ditzakegun zailtasunei buruz ere.

## GAIA 7

### EUSKARARAKO PIZGARRI FISKALAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2024an, Gipuzkoan ekoizten den kultur proiektuei pizgarriak jarri dizkio, eta euskaraz izanez gero, pizgarriak areagotzen dira. Hortik abiatuta, hizkuntza teknologiei ere aplikatu ahal dizkiegu pizgarriak? Badira aukerak horretarako?

## GAIA 8

### EUSKARAZKO MUSIKAREN INDUSTRIAREN ONURAK EUSKAL EKONOMIAN, "EUSKADIN ROCK AND ROLL-AK EZ DU INOIZ DIRURIK EMANEN..." EDO BAI...

Euskaraz ari diren musika taldeak BEC, Miribilla, edota belodromoa betetzen ari dira, eta honek aberastasun kulturalaz gain, aberastasun ekonomikoa dakarkio Euskadiri, fenomeno hau aztertu nahi dugu panel honetan. Euskaraz aritzeak, beste hizkuntzatan arituta lortuko ez lituzketen onurak ekartzen al dizkie musikari hauei? Eta honek zer eragin du Euskadiko ekonomian?

## GAIA 9

### ENTRETENIMENDU-INDUSTRIAREN DIGITALIZAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUETAN

Hizkuntza gutxituak benetan bizirik egon daitezen alor guztietan garatu beharra dute, baita aisialdiari dagokion esparruan ere, haur, nerabe zein helduei zuzendua. Panel honetan ezagutuko ditugu hizkuntza desberdinetan entretenimenduaren alorrean aurrera eramandako zenbait proiektu digital.

# GAIA 10

## HIZKUNTZA GUTXITUEN DIGITALIZAZIOAREN GARRANTZIA IKUS-ENTZUNEZKOETAN

Bizi dugun errealitatea gero eta multimediagoa da. Alegia, kontsumitzen dugun edukiari erreparatzen badiogu, ikus-entzunezkoen nagusitasuna nabarmena da. Ondorioz, edozein hizkuntza gutxituentzat ezinbestekoa da ikus-entzunezkoak bere estrategiaren zati izatea. Telebista, zinema, audio-liburuak, podcast-ak, sare sozialetako bideoak... Hizkuntza gutxituek mota horretako edukiak ekoiztea garrantzitsua da, Interneten eta ingurune digitalean presentzia bermatzeko eta hizkuntza horren biziraupena bermatzeko. Gainera, ekoizpen horrek ere eragin ekonomikoa du.

## HIZLARIAK

30 hizlaritik gora elkartuko dira Kursaaan azaroaren 26an eta 27an.

**HIZLARI GUZTIEI BURUZKO INFORMAZIOA**



Jarraian horietako batzuei buruzko informazio zehatzagoa.

**Hizkuntza gutxituak balioan jartzen dituzten sorkuntzak  
bultzatu dituzten hizlariak**



**ALEXANDER IULIUS JERPELEA**

Arrumano



17 urteko ikaslea eta hizkuntza arrumanoaren itzultzaile automatikoaren sortzailea da. Bere amak instituzio ofizialekin errumanieraz eta ingelesez ulertzeko zituen zailtasunak ikusita, erabaki zuen bere kabuz itzultzaile automatikoa sortzea. Itzultzaile automatiko horrek arrumanoa-ingelesa, arrumanoa-errumanoa eta ingelesa-errumanoa hizkuntzekin egiten du lan. Itzultzaileari esker, Alexander Iulius ezaguna egin zen Errumanian, bertako telebista kate eta egunkari askok eman baitzuten berak sortutako itzultzaile automatikoaren berri.

## Arrumanoa

200.000 pertsona inguruk hitz egiten dute Grezian, Ipar Mazedonian, Bulgarian, Serbian, Albanian eta Errumanian.

“Nire inspirazioa hizkuntzalaritza konputazionalaren autoikasketatik etorri zitzaidan, baita galtzear dauden hizkuntzei zuzendutako itzulpen automatikoko beste proiektu batzuk ikustetik ere, hala nola samia eta cherokeea. Ahalegin horiek beste hizkuntza batzuetarako ikusteak antzeko zerbait sortzera bultzatu ninduen arrumanoarentzat”

ALEXANDER IULIUS-EKIN SOLASEAN



## Informazio gehiago:

- [Hizkuntza arrumanoaren itzultzaile automatikoa →](#)
- [Alexander Iulius-eri buruz Digi 24 hedabidean →](#)
- [Alexander Iulius-eri buruz Libertatea hedabidean →](#)



## SAMUEL FRONTULL

Ikertzailea Innsbruckeko Unibertsitatean eta Ladin Institutuan Tirol hegoaldean (Tirol Hegoaldea)

29 urteko gazte honek hizkuntza ladinoaren lehen itzulpen automatikoko sistema asmatu zuen. Ladinoa edo ladiniera hizkuntza gutxitua da eta 40.000 pertsonak hitz egiten dute Tirol Hegoaldean, Trentinon eta Veneto eskualdeetan, Italiako iparraldean.

Frontull-ek hizkuntza-teknologiekin lan egiten du Austriako Innsbruck Unibertsitatean. Bertan Konputazio Zientzietan doktoregoa lortzeko hautagaia da. Aurretik, Datu Zientzietan eta Konputazio Zientzietan lizentziatura bat eta master bat ikasi zituen. Eskarmentua du irakaskuntzan, eta 2019tik hainbat gairi buruzko hitzaldiak eman ditu: egitura diskretuak, informatika teorikoa eta itzulpen automatikoa. Bere ikerketa itzulpen automatikoan eta baliabide gutxiko hizkuntzetarako NLPko beste aplikazio batzuetan oinarritzen da, ladiniera, bere jatorrizko hizkuntza, bereziki. Horrez gain, zientzia informatiko teorikoan ere lagundu du, non programen konplexutasuna aztertzeko datuetan oinarritutako metodoen garapenean lanean jarraitzen duen.

### **Ladinoa edo ladiniera**

40.000 hiztun inguru ditu Ladinia lurraldean, Italiako Dolomita mendietan; zehazki, Veneto eta Trentino-Adige Garaia eskualdeetan.

### **Informazio gehiago:**

- **Samuel Frontull-eri buruz Stol.it hedabidean →**
- **Samuel Frontull-eri buruz Notizia Digitala hedabidean →**



## IONA MERCER ETA MIRREN BUCHANAN

Gaelikoa hitz egiten online irakasteko elkarte (MG Alba) eta Online produkzioaren arduraduna (MG Alba)

Iona Mercerrek eta Mirren Buchananez Eskoziako gaelikoa online ikasteko plataformak garatu dituzte Instagram-en, Facebook-en, Twitter-en eta Tiktok-en, *SpeakGaelic* proiektuaren baitan. Mercerrek eta Abigail MacIver izeneko lankide batek proiektu zoragarri hau aurkeztu zuten irailaren amaieran Bruselan hizkuntza gutxituetako digitalizazioari buruzko kongresu batean. *SpeakGaelic* proiektua gazteek gaelikoa online ikasteko modu dibertigarria da. Aplikazioa norberak bere mugikorrean deskarga dezake. Ikerketen arabera, proiektuak Eskoziako gaelikoaren ezagutza eta erabilera areagotu du gazteen artean.

Mercer eta Buchanan BBC taldeko MG ALBA telebista-kate eskoziarraren digitalizazioan ari dira lanean. Gaelikoa eta ingelesa ikasi dute biek Glasgowko Unibertsitatean, eta gaur egun MG ALBArako eduki digitalak lantzen ari dira. Buchanan *SpeakGaelic* webgunearen ekoizle digitala da eta ekoizpen digital guztia gainbegiratzen du.

### **Eskoziako gaelikoa**

Eskoziako iparraldean eta mendebaldeko uharteetan hitz egiten den hizkuntza zelta da. Ia 60.000 hiztun aktibo daude egun, Eskoziako biztanleen % 1 besterik ez.

Kanadan hiztun batzuk ere badaude eta dialekto horri Kanadako gaelera deitzen zaio.

### **Informazio gehiago:**

- [SpeakGaelic proiektuari buruz BBCn →](#)
- [Proiektuari buruz SpeakGaelic Youtubeko kanalean →](#)



## JÖRG HÜBNER

Ikertzailea Innsbruckeko Unibertsitatean eta Ladin Institutuan Tirol hegoaldean  
(Tirol Hegoaldea)

Jörg Hübner ekonomian doktorea da. Orain arteko ibilbide profesionalean, espezialista eta zuzendaritza karguak izan ditu, bai enpresa pribatuetan, bai sektore publikoko erakundeetan. Bere espezializazio arloak marketin komunikazioa, harreman publikoak eta produktu eta zerbitzuen kudeaketa dira.

Ziurrenik hizkuntza gutxituetako bideojokoei buruz gehien dakien pertsona da. Hübner sorabiera online ikasteko plataforma eta proiektu digital ia guztien atzean dago, hala nola "Sorbisch - Na klar" podcasta eta Rapaki proiektua.

### **Sorabiera**

Alemanian hitz egiten den eslaviar taldeko hizkuntza da, Saxonia eta Brandenburgo estatuetako hizkuntza ofiziala.

Bi dialekto oso berezi ditu: goi-sorabiera, 40.000 hitzunekin eta behe-sorabiera, 14.000 hitzunekin. Polonieraren antz pixka bat duenez, era oso mugatuan bada ere, elkar ulergarriak dira.

Alemanaren eragina dela eta, gero eta hitzun gutxiago daude.

### **Informazio gehiago:**

- **Sorbisch - Na Klar podcasta** →
- **Rapaki proiektua** →

## Euren herrialdeetako digitalizazio programei buruz hitz egingo duten hizlariak



### **RÓNÁN MAC CON IOMAIRE**

Údarás na Gaeltachta-ko zuzendaria

Irlandako ÚnaG erakundeko Eskualde, Komunitate eta Hizkuntza Garapenerako zuzendaria da. Údarás na Gaeltachta edo ÚnaG, laburtuta, Gaeltacht-eko (Irlandan irlandera mintzatzen den eremuko), garapen ekonomiko, sozial eta kulturalaren ardura duen estatu-erakundea da. Aurretik, Mac Con Iomaire Irlandako irrati-telebista kate publikoa den RTÉ taldeko burua izan zen eta RTÉ Radió-ko zuzendari ondokoa.

Mac Con Iomaire-k 'Rocky Ros Muc' liburua idatzi zuen, 1984an New York-eko Madison Square Gardenen pisu arineko munduko txapelketa irabazi zuen Sean Mannion boxeolari irlandarraren biografia. Lan horregatik Urteko Idazle Berría saria jaso zuen eta liburua garai guztietako salmenta handiena izan duen irlandaraz idatzitako liburua bihurtu zen. Biografia horretan oinarrituta, Radar TVk 'Rocky Ros Muc Below' dokumentala egin zuen 2017an. Mac Con Iomaire-k ekoizle eta kolaboratzaile gisa parte hartu zuen dokumental hartan, zeinak hainbat jaialditan sariak irabazi zituen, besteak beste, Boston Irish Film Festival, Galway Film Fleadh eta Celtic Media Festival.



## **CHRISTINA GESTRIN**

Suediako batzarraren idazkari nagusia Finlandian

Christina Gestrin Finlandiako Asanblada Suediarreko idazkari nagusia da 2020tik. Bere ikasketak garatu zituen Ingurumen Zientzietan, Helsinkiko Unibertsitatean eta Enpresen Administrazioan Masterra egin zuen Aaltoko Unibertsitatean. Christina Gestrin oso politikari ezaguna da Finlandian. Finlandiako Parlamentuko kidea izan zen 2000tik 2015era eta Finlandiako Suediako Alderdi Popularreko presidenteorde ohia 1998tik 2005era. Gaur egun Espoo herriko udaleko kidea ere bada, baita irabazi asmorik gabeko fundazioko patronatuko partaidea ere.

Gestrinek, Markus Södermanekin batera, Finlandiako errealitate digitalari buruzko lehen azterketa egin du. Azterlanak Europako adibideak ere aipatzen ditu, eta digitalizazioak eta adimen artifizialak hizkuntza txikienei dakartzkien arriskuak eta abantailak deskribatzen ditu. Suediera Finlandiako bi hizkuntza ofizialetako bat den arren, askotan ahaztu egiten da sektore publikoa digitalizatzen denean.

### **Suediera**

Hizkuntza germanikoa da, Suedia, Finlandia eta Åland Uharteetan ofiziala da. Danieraren eta norvegieraren oso antzekoa da.

Alde batetik, suediera estandarra (standardsvenska) aldaerarik zabalduena da. Beste alde batetik, bi aldaera nagusi bereizten dira: rikssvenska, Suedian hitz egiten dena, eta högsvenska, Finlandian mintzatua.

Horrekin batera, suedieraren hiztunak horrela banatzen dira, aldaerei dagokienez:

- Erdialdekoa: 5-7 milioi hiztun.
- Hegoaldekoa: 2-4 milioi hiztun.
- Finlandiako: 300.000 hiztun.



## ELIZABETE KRIVCOVA

Letoniako digitalizazio hizkuntza diskriminazio kasuetan aditua eta abokatua

Abokatua eta giza eskubideen defendatzailea da, eta 20 urte baino gehiagoko esperientzia du praktika juridikoan eta gutxiengo etnikoen eskubideen defentsan. Letoniako gutxiengo errusiarra ordezkatzeko eta aktiboki parte hartu du Letoniako Konstituzio Auzitegian, Giza Eskubideen Europako Auzitegian eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegian hizkuntza-eskubideen inguruko auzi garrantzitsuetan. Krivcova Letoniako Parlamentuko prozesu legegileetan ere aritu da, gutxiengoen eskubideen alde. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoko, ACNUDH-eko, Minorities Fellowship Programme (MFP) edo Gutxiengoentzako Beken Programa jaso zuen, adimen artifizialak hizkuntza gutxituentzat zer suposatzen zuten ikertzeko. Zentzu horretan esan, Letoniak webgune publiko guztietan errusiera debekatzen duen lege bat onartu duela 2024an. Helburua Errusia espazio digitaletik desagerraraztea da.

## Gai eta errealitate desberdinak ekarriko dizkiguten hizlariak



### **SEDA AKBULUT**

Universal Acceptance Programaren kudeatzailea

Seda Akbulut 2015an hasi zen ICANN-en lanean. ICANN da Interneten domeinu izenen funtzionamendua (DNS edo Domain Name System) arautzen duen erakundea. Akbulut-ek duela hiru urtetik Universal Acceptance programa kudeatzen du. Programa horrek Interneteko domeinu izenetan karaktere bereziak onartuak izan daitezzen bilatzen du. Hau da, bere helburua da domeinuak eleaniztunak eta digitalki inklusiboak izan daitezela. Izan ere, Interneten duela urte gutxi arte karaktere bereziak (gure kasuan ñ edo ç adibidez, baina beste hizkuntza batzuen kasuan beraien idazkera osoa, arabiarra, zirilikoa eta abar), ez zen onartzen. 2012tik hona, ordea, onarpena zabaltzen ari da. PuntuEUSek onartzen du adibidez, beste karaktere batzuekin erregistratzea. Beraz, Universal Acceptance programa, Interneten eleaniztasunaren arazoa lantzeko beste modu bat da eta nazioartean egiten ari den ahalegin kolektiboa.

Akbulut-ek Ingeniaritza Matematikoan lizentziatura du, baita MBA bat ere. Bere ibilbide profesionalean zehar, nazioarteko hainbat enpresarekin lan egin du hainbat arlotan: komertzial, finantza, prozesuen garapena...



**Informazio gehiago nahi izanez gero edo elkarrizketa bat  
lotzeko, jarri gurekin harremanetan:**

**[www.hizkuntzenirabazia.eus](http://www.hizkuntzenirabazia.eus)**



**[komunikazioa@hizkuntzenirabazia.eus](mailto:komunikazioa@hizkuntzenirabazia.eus)**



## Antolatzaileak




## Babesleak

MEGVALÓSULT A MAGYAR KORMÁNY  
TÁMOGATÁSÁVAL



Adimen Artifizial eta  
Hizkuntza Teknologiaiko  
HITZ Katedra  
Cátedra HITZ  
de Inteligencia Artificial  
y Tecnología de la Lengua



## Laguntzaileak

[www.hizkuntzenirabazia.eus](http://www.hizkuntzenirabazia.eus)

# FORUM